

## 51 kulturgilek salatu dutenez, beren buruari autozentsura aplikatzea nahi du Eusko Jaurlaritzak

---

AINHOA SARASOLA :: 03/04/2025

Espetxeetan aisialdi ekintza bat egiten duen artista aurretik dokumentu bat sinatzeko exigitzen ari zaie Eusko Jaurlaritzak, eta horrekin, marra gorri ideologikoak ezartzen direla bermatzen dute.

*Espetxeak libre* izeneko manifestua plazaratu dute hainbat kulturgilek. Salatu dutenez, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako espetxeetan aisialdi ekintza soziokultural bat egiten duten artista, talde nahiz elkarteei alde aurretik dokumentu bat sinatzeko eskatzen ari zaie Eusko Jaurlaritza; *Euskadiko espetxeetan, aisialdirako gizarte eta kultura jardueretan tratamendu helburua eta delituen biktimen duintasuna eta sentimenduak errespetatzeko konpromisoa* izeneko dokumentua, hain zuzen. Ez dutela sinatuko adierazi dute 51 sortzailek, eta erretiratzeko ere eskatu diote Jaurlaritzari. Halaber, sortzaileei manifestuarekin bat egiteko deia egin diete.

Dokumentuak kulturgileei eskatzen die zin egin dezatela bi konpromiso beteko dituztela kartzela barruko jarduera horri lotuta. Hala dio lehenak: «Jarduna eta haren edukiak, betiere, askatasunaz gabetutako pertsonak gizarteratzeko prozesuaren eta espetxe tratamenduaren xede den jokabide prosozial egokiaren aldekoak izango direla. Ildo horretan, funtsean eta forman, saihestu egingo dira Giza Eskubideen, Ordenamendu Juridikoaren eta espetxeetako tratamendu psikosozialaren aurkako balioak eta jarrerak babestea, justifikatzea eta goratzea ekar dezaketen adierazpenak». Eta bigarrenak, berriz, honako hau: «Era berean, jarduerak eta edukiek ezin izango dute inola ere iraindu edo kaltetu inolako delituren biktimen duintasuna eta sentimenduak, edozein dela ere babestutako ondasun juridikoa. Ildo horretan, delituak edo jokabide antijuridikoak egitearen aldeko edozein adierazpen saihestuko da, bai eta justiziaren ekintzaren kontrakoak, edo LGTBI+ taldeak, emakumeak, terrorismoaren biktimak, desgaitasuna duten pertsonak, atzerritarrak edo bestelako indarkerien biktimak bezalako kolektiboekiko mespretxua edo gorrotoa erakusten dutenak».

«Ez, ez dugu sinatuko, eta Eusko Jaurlaritzari dokumentu hori erretira dezala eskatzen diogu», adierazi dute manifestuaren sinatzaileek. Kulturgile horiek, dokumentuko lehen puntuaren harira, esan dute ez dutela «Huxleyren *Bai mundu berria* kultura sortu nahi». «Ez dugu kulturgintza bat nahi estatuen, enpresen, espetheen eta abarren aldeko mezuak bota eta kritika oro zentsuratzeko».

Bigarren puntuaz, berriz, esan dute «bereziki mingarria» iruditzen zaiela, «dokumentuaren xedea zentsura izanik, kolektibo batzuen zapalkuntza historikoa erabiltzea espetxearen irudia garbitzeko, espetxea bera zapalkuntza horien tresna (izan) delarik». Eta galdetu dute ea kantatu ahal ote diren *564; Carcelero, carcelero; Sarri Sarri; Presos de la sociedad* nahiz Pantxoa eta Peioren kantak kartzela barruan, edota bertsolari batek espetxea kritikatu ahal duen bertso batean.

«Zera nahi dute, sortzaileak autozentsura aplikatzea bere buruari, gaizki geratzen baita zuzenean debekatzea, eta aldi berean eskubidea ematen diote espetxeari erabakitzeko zer den kultura onargarria eta zer ez, nahiko modu arbitrarioan», salatu dute sinatzaileek. Haien ustez, baina, kritikak eta publikoak baloratu behar dute kultura.

### «Inkiszioaren eta frankismoaren teknikak»

Kulturgileen iritziz, «kulturak balio terapeutiko bat dauka aske denean»; aldiz, «inposatua denean», balio hori galdu egiten duela ohartarazi dute. «Sakonean inkiszioaren eta frankismoaren teknika berdinak baliatzen ari dira hitz modernoagoak erabili arren. Presoek kulturarako eskubidea dute kalekoek bezala. Eta barruan nahikoa kamera eta mikro daude jardun kulturala baldintzatzen dutenak, ezdezagun mamu gehiago gehitu».

Manifestua «irribarre ironiko batekin» amaitze aldera, gogora ekarri dute Auschwitzeko sarraski esparrua askatu zuteneko 80. urteurrena dela, eta *Arbeit macht frei* (Lanak askatzen du) zela gunearen sarrerako goiburua. «Beharbada inoiz edo behin antzezlan, kontzertu, bertso saio edo hitzaldi batera sartzen garen kulturgileek antzeko zerbait oihukatu beharko genuke: «*Espetxeak libre egingo zaituzte!*».

Dozenaka kulturgilek salatu dute beren buruari «autozentsura» aplikatzea nahi duela Eusko Jaurlaritzak espetxeetan kultur jarduerak egiteko

---

<https://eh.lahaine.org/51-kulturgilek-salatu-dutenez-beren>